



KLAUDIO UGARTE

ARANTZAZUKO ERROTAKO SEMIA

Sasue batian labrantzaia eta baserri lanak nagusi ziranian, hogeitaz errotatik gora ei ziran Oñatiko auzo guztietan sakabanatuta, urfaltarik be ezeguen eta gure herrixan. Gaur egun Olabartako errotan bakarrik ixoten daue

kanpotik ekarrittako arto apurren bat. Aurki 90 urte beteko dittuan Klaudiok, Serafina Arregi bere andriaren laguntzaiaz, orduko errotari eta baserritarren bizimoduan barri emun dosku alkarrizketa honetan zihar.

-Zu zeu errotari lanetan jardundakua zara?

Neu asko ez; neu baiño gehixago nere aittajuna eta aitta, Felix, orain dala 18 urte 96 urterekin hil zana. Ni neu kanpuan ibiltten nintzan batez be, astuekin ikatz-karriuan eta.

- Zenbat errota egozen Arantzazu auzuan?

Bakarra, geuria, auzoko baserritarako nahikua. Uribarriko baserri batzutatik be etorten ziran noizian behin; Araotzetik, barriz, iñobez, han lau bat errota baziran eta.

-Zeuna izan dozue errotia?

Ez. Terrenuak bai, baiña errotia bera, teilla-azpixa, ezta geuria. Gu beti errenneruak izan gara. Garai batian Arantzazuko fraileak ebalten ebein, gero Zerrajeriarena izan zan eta orain herri-xarena da.

- Noiz arte egon zan martxan zuen errotia?

Orain dala 40 bat urte egon ziran uraundi izugarri batzutan errota-zulua harriz bete zan. Ordurako lana be asko bajauta eguen, baiña uraundi harettan inñutilddu zan errotia.

- Ze ale klase ixoten zan gehixen?



Gerra denporan egin zan lan gehixen gurian; errota asko itxitta egozen eta Arabatik be etorten xakun alia ixotera.

Jeneralian, artua eta garixa... eta beti be, baba-sikuren batzuk baten batek esan ezkerok. Arantzazuko frailiak kanpotik ekarrittako *algarroia* edo antzerako izena eukan ale klase bat be askotan ixoten ebein gurian; gero sopan jaten ebein haren uruna. Baiña hori bakarrik gerra denporan, besterik topaitterik ez egue-nian.

- Gerra denporan errota geldik egon zirala entzunda dakogu. Zenbat iraun eben horrek?


Hasieran guria be prezintauta egon zan gehixenak letxe, baiña gero Araotzeko bat eta geuria erei ebein eta orduan lan asko egon zan. Aitta gau eta egun egoten zan urun artian; Araba alde-tik ekarten ebein garixok ixoteko.

- Arantzazuko frailiak zuen erro-tara lan asko eruaten ebeilla esan dozu. Eurakin tratu bereziren bat zeukain?

Ez, eurairi be, bestiairi letxe, *moturia* kentzen xaten: garixa edo artua ixo eta gero, hamarretik bat etxerako geraketan zan.

Urun horrekin ogixa egitten zan, baiña horretarako aurretik eragin egin bihar zan *baiatik* pasauta.

- Zure denporan be errotarixaren lana izaten zan gari-zorrua baserri-



PEUGEOT-TALBOT

OÑATI K. Elk. GARAJEA

Goribar auzoa, z/g. Tfnoa: 78 13 50 OÑATI

ADI

- Fotokopiak
- Kolorezko kopiak
- Enkuadernazioak
- Fax publikoa

Foruen Enparantza

OÑATI

Tel: 78 24 89 Fax: 78 24 89



ttatik errotaraiño ekartia eta ixo eta gero berriz bueltaittia?

Bai, lehen halaxe zan, eta gurian neu ibiltten nintzan lan horretan astuarekin. Dana dala, ni gaztia nintzala Araotzeko errotari batek eta gure aittak aldatu egin ebein hori. Orduan baserritarrok apur bat hasarratu ziran, baiña bakoitzak beria ekartiari ekin bihar izan otzain.

- Errotatik bizitterik baeguen?

Ez, ez, errotatik bakarrik ezta pensau be. Ardixak eta ganauak be bagittuan; labrantzaia, barriz, gutxi, Arantzazu auzua gari-leku eskasa da eta.

- Astuekin ikatz-karriuan ibillitakua zariela esan dozu lehen; nundik nora?

Arantzazutik gora baso danian, Artasotik ekin eta Urbixaraiño egoten ziran zegamarrak, naparrak, ataundarrak... ikazkintzan. Handik Arantzazura astuekin egitten nittuan bi bat buelta egunian. Sei asto, bakoitzian bi ikatz-sakurekin faten nintzan eta batzutan 14 astorekin be bai, baiña orduan kriauarekin. Arantzazun *galeradatan*, manduak tiratutako lau erruedako burdittan, sartzan zittuain naparrak. Mandazaiñak naparrak izaten ziran beti.

- Beste gauzarik karriaitten zeben?

Nik 30 bat urte neukala ikatza gas-tauaz fan zanian, Bergaran bi urte eta Eibarren beste bi egin nittuan astuekin obretako materialak karriaitten. Gaztiago nintzala, Kataberako miñeta-tik garbittutako miñerala bajaitten be ibilli nintzan apur baten, baiña itxuria bihar dan moduko materialik egon ez, eta bertan behera itxi otzain.

- Astuak be izango zittuan lanak?

Bai, perrau biharra sarrittan eukitten ebein, eta neuk egitten neben hori be.



Etxia zutik dago oranddio, baiña errotapeko turtikiñuak eta harrixak orain dala 40 urteko uraundittan hondatu ziran.

- Gerra inguruan, paraje honeittatik Araba aldera mubimendu haundi- xa egon ei zan.

Bai, estraperluan makiña bat patata eta gari ekarri zan handik, hemen eskasia haundixa egon zan eta. Hamaika ibi-

llera egindda gagoz: illunkaran urten, allegau, astua kargau, afaldu eta, eguna argittu orduko, etxera bueltia iñor akor-dau barik.

- Iragoko urtetan kalia bizi zarai. Sarri faten zarai Arantzazuko errotara?

Ez, apenas; oso gutxi, bidia porlan-duta be eztago eta. Aurten egingo dauei-lla aginddu daue, baiña oraingoz oso bide eskasa dago. Semia bai, egunero faten da ganauak eta gobernaittera.

- Dana dala, han bizi ziñanian ferixa egunik ez ei zeben galtzen.

Orain be ez; lehenengo ebaikotz danetan faten naiz Sindikako Enrikekin ferixara. Baiña hori be oso aldatuta dago: lehen ganaua ugari egoten zan; orain, barriz, makiñerixa asko, kamioie-tan txarriren batzuk eta arbola-landara batzuk besterik ez.

Jaturabeko kanala egin ebeñian, harrixa eta hareia karriaitten makiña bat buelta egin nittuan astuekin.

JON
ARGAZKIGINTZA
Kale Barria, 28 behea
Tfnoa: 78 24 81 OÑATI

**TXINTXURRETA
ELEKTRETXEIA**
Elektra instalazioak
eta iluminazioa
Kale Barria, 5. Tfnoa: 78 01 54 / 78 11 74 OÑATI

Kaioa
JANTZIAK
OPARIAK
Kale Barria, 54
Tfnoa: 78 06 40 OÑATI